Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 13a, ostirala — 135 — Viernes, a 13 de julio de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*0401 LI/2018 Foru Agindua, uztailaren 10ekoa, zeinaren bidez aldatu egiten baita, epaia betez, 423/2014 Foru Agindua, uztailaren 23koa, Donostiako eta Pasaiako udalerrien zai bat ehizarako segurtasun eremu deklaratzekoa.*

Garai hartako Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko diputatuak, 2014ko uztailaren 29ko 423/2014 Foru Aginduaren bidez, Donostiako eta Pasaiako udalerrien zati bat ehizarako segurtasun-eremu deklaratu zuen. Foru Agindua 2014ko uztailaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (142 zk.) argitaratu zen.

Gipuzkoako Ehiza Federazioak jarritako 613/14 administrazioarekiko auzi errekurtsoaren arabera, eta EAEko Justizia Auzitegiko administrazioarekiko auzietarako salak 2017ko otsailaren 14an eman zuen 59/2017 epaiaren bidez, ezeztatu egin zen uztailaren 23ko 423/2014 Foru Aginduaren zati bat; zehazki, Donostiako eta Pasaiako udalerrietako ehizarako segurtasun eremutik kanpo uzten ditu Ulia mendian dauden ehizarako postu lerroak. Hala ere, ezeztapenak ez du eraginik gaineko aurreikuspenetan, eta, bereziki, segurtasun eremuaren mugapen fisiko hedatuan.

2017ko abenduaren 26an, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak jakinarazi zion Gipuzkoako Foru Aldundiari epaia irmoa eta betearazlea zela, bertan ebatzitakoa bete egin behar zela, eta bertan xedatutakoa betetzeko egin beharrekoak egin beharko zituela.

Hori betetzeko, aldatu egin behar da 423/2014 Foru Agindua, uztailaren 23koa, eta hegazti migratzaileen pase garaian postu finkoetan ehizatzeko baimena duten postu finkoen artean sartu behar dira Uliako itsasertzeko eremuan baimendutako lerroetako postuak.

Horregatik guztiagatik, aipatu epaian xedatutakoa betez, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako foru diputatu honek.

XEDATZEN DU

*Artikulu bakarra. Aldatzea, orduko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko diputatuak emandako 423/2014 Foru Agindua, uztailaren 23koa, Donostiako eta Pasaiako udalerrien zati bat ehizarako segurtasun-eremu deklaratzekoa.*

Orduko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko diputatuak emandako 423/2014 Foru Agindua, uztailaren 23koa, Donostiako eta Pasaiako udalerrien zati bat ehizarako segurtasun-eremu deklaratzekoa, honela idatzita geratzen da 2. artikuluaren 2. zenbakian (Debekuak):

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Orden Foral 0401 LI/2018, de 10 de julio, por la que se modifica, en ejecución de sentencia, la Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio, de declaración de zona de seguridad para la caza en parte de los términos municipales de San Sebastián y Pasaia.*

Mediante Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio, del Diputado de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 142, de fecha 29 de julio de 2014, se procedió a la declaración de zona de seguridad para la caza en parte de los términos municipales de San Sebastián y Pasaia.

En virtud del recurso contencioso-administrativo n.º 613/14, interpuesto por la Federación Guipuzcoana de Caza y mediante sentencia 59/2017 de la sala de lo contencioso administrativo del Tribunal de Justicia del País Vasco, de 14 de febrero de 2017, se anuló parcialmente la citada Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio, concretamente en cuanto excluye respecto de la zona de seguridad de caza en los términos municipales de San Sebastián y Pasaia las líneas de puestos fijos de caza existentes en el monte Ulia, sin afectar dicha anulación al resto de sus previsiones y, en particular, a la delimitación física ampliada de la zona de seguridad.

El 26 de diciembre de 2017 tuvo entrada en la Diputación Foral de Gipuzkoa comunicación del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de que la sentencia era firme y ejecutoria y del deber del llevar a puro y debido efecto lo resuelto en ella, practicando lo que exija el cumplimiento de las declaraciones contenidas en el fallo.

En cumplimiento de lo anterior resulta necesario modificar la redacción del artículo 2.2 de la Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio, para incluir entre los puestos fijos autorizados desde los que resulta posible cazar en época de pase de aves migratorias, los puestos correspondientes a las líneas autorizadas en la zona costera de Ulia.

Por todo ello, en ejecución de lo dispuesto en la mencionada sentencia, esta Diputada Foral de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial.

DISPONE

*Artículo Único. Modificación de la Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio, del Diputado de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de declaración de zona de seguridad para la caza en parte de los términos municipales de San Sebastián y Pasaia.*

El número 2 del artículo 2 (Prohibiciones) de la Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio, del Diputado de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de declaración de zona de seguridad para la caza en parte de los términos municipales de San Sebastián y Pasaia queda redactado en los siguientes términos:

EK\CV GAO-I-2018-05013

«2.2. Hegazti migratzaileen pase garaian, ehiza egin ahal izango da ondoren zehazten diren postu baimenduetan, kasuan-kasuan aipatzen diren garai eta orduetan:

— Ulia eta Igeldoko itsasertzean baimendutako lerroetan: irailaren laugarren igandetik azaroaren laugarren igandea arte.

— Altza eta Papin inguruan baimendutako lerroetan: abuztuko azken igandetik urriko bigarren igandea arte.

— San Marko eta Antondegi inguruan baimendutako lerroetan: abuztuko azken igandetik azaroko laugarren igandea arte.

Larunbat, igande eta jaiegunetan goizeko hamarrak arte ehizatuko da, eta ordu horietatik aurrera ehiztariek ezin izango dute postuetan egon.»

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2018ko uztailaren 10a.—Ainhoa Aizpuru Murua, foru diputatua. (5013)

«2.2. En la época de pase de aves migratorias se podrá cazar exclusivamente desde los puestos fijos autorizados que se determinan a continuación, ajustándose a los siguientes períodos y horarios:

— Líneas autorizadas en las zonas costeras de Ulia e Igeldo: del cuarto domingo de septiembre al cuarto domingo de noviembre.

— Líneas autorizadas en las zonas de Alza y Papin: del último domingo de agosto al segundo domingo de octubre.

— Líneas autorizadas en la zona de San Marcos y Antondegi: del último domingo de agosto al cuarto domingo de noviembre.

Los sábados, domingos y festivos se cazará únicamente hasta las diez de la mañana, debiendo abandonar los cazadores los puestos a partir de dicha hora.»

*Disposición final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 10 de julio de 2018.—La diputada foral, Ainhoa Aizpuru Murua. (5013)



EK\CV GAO-I-2018-05013